



**AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA**

Herriko Enparantza, 1
48314 Gauegiz Arteaga
Tel. eta faxa: 94.625.29.53

99/2017 ALKATETZA DEKRETUA

Ikusita apirilaren 4ko 44/2017 Alkatetza Dekretua, zeinen bitartez 2017. urtean Gauegiz Arteagako gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteei emateko diru-laguntzen deialdia eta horien gastua onartzen diren.

Ikusita 76. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (2017ko apirilaren 21ekoa), Gauegiz Arteagako Udalaren webgunean eta iragarki-tauletan argitaratutako deialdia.

Ikusita “Gauegiz Arteagako Helduen Elkarteak” 2017ko maiatzaren 8an (657. Exekuzio-erregelamendua) eta 2017ko maiatzaren 10ean (668. Exekuzio-erregelamendua); “Pertsona Nagusien Kanalako Nagusiak elkarteak” 2017ko maiatzaren 12an (684. Exekuzio-erregelamendua); “Montorrealde Gurasoen Elkarteak” 2017ko maiatzaren 18an (714. Exekuzio-erregelamendua); “Gaztelu-zar elkarteak” 2017ko maiatzaren 19an (721. Exekuzio-erregelamendua); “Antoliñape Kultur Elkarteak” 2017ko maiatzaren 22an (739. Exekuzio-erregelamendua) eta “Artie Dantza Taldeak” 2017ko maiatzaren 22an (740. Exekuzio-erregelamendua) aurkeztutako eskaerak eta dokumentazioa.

Ikusita ekainaren 9ko 68/2017 Alkatetza Dekretua, zeinen bitartez hamar egun balioduneko epean dokumentazioan hautemandako akatsak zuzentzeko eskatzen zaien diru-laguntza hau eskatu zuten zenbait erakunderi, akatsak zuzentzeko jakinarazpena jaso zuten egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Ikusita udalerriko elkarteek zuzendu eta aurkeztutako dokumentazioa, besteak beste, Gauegiz Arteagako Udalari baimena emanez zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela frogatzen duten ziurtagiriak eskatzeko.

Zerrenda honetan ageri dira diru-laguntza eskatu duten elkarteak, dokumentazioa zuzendu eta berriz aurkezteko epea bukatu ondoren:

Elkartearen izena	Dokumentazio guztia aurkeztu du?
Gautegiz Arteagako Helduen Elkartea	Bai
	Bai
Montorrealde Guraso Elkartea	Bai, baina Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiria falta da. Hala ere, baimena eman dio Udal honi ziurtagiri hori zuzenean Gizarte Segurantzari eskatzeko.
Gaztelu-zar elkartea	Ez, ez da inskribatu elkarteen erregistroan, ez baitu aurkeztu eraketa-akta. Horrez gain, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiria falta da. Hala ere, baimena eman dio Udal honi ziurtagiri hori zuzenean Gizarte Segurantzari eskatzeko.
Artie Dantza Taldea	Bai, baina Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiria falta da. Hala ere, baimena eman dio Udal honi ziurtagiri hori zuzenean Gizarte Segurantzari eskatzeko.
Antoliñape Kultur Elkartea	Bai, baina Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiria falta da. Hala ere, baimena eman dio Udal honi ziurtagiri hori zuzenean Gizarte Segurantzari eskatzeko.
Pertsona Nagusien Kanalako Nagusiak elkartea	Bai, baina Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela frogatzen duten ziurtagiria falta da. Hala ere, baimena eman dio Udal honi ziurtagiri hori zuzenean Gizarte Segurantzari eskatzeko.

Ikusita Gautegiz Arteagako Udalak erakundeek Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela frogatzen duten ziurtagiriak eskatu dizkiola Gizarte Segurantzari, erakundeek emandako baimenarekin, eta eskaera luzatzen ari dela, Gizarte Segurantzari egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta.

Ikusita Udalak ez dakiela Gizarte Segurantzak noiz bidaliko duen eskatutako dokumentazioa (aurreko paragrafoan aipatutakoa) eta kontuan hartuta erakundeek finantzaketa behar dutela.

Kontuan hartuta Gaztelu-zar elkarteak ez dituela aurkeztu diru-laguntza hau eskatzeko behar ziren dokumentu guztiak eta, gainera, Gaztelu-zar elkarteak ez dituela betetzen Administrazioaren eskutik diru-laguntza hau jasotzen duten elkarteek bete beharreko berdintasun printzipioak.

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko ebazpen proposamena, 2017ko uztailaren 14koa.

Ikusita Gaztelu-zar elkarteak aurkeztutako eskaerari lotuta 2017ko uztailaren 20an Idazkari Kontu-hartzaileak igorritako txosten juridikoa.

Alkatetza honek **EBAZTEN DU**:

Lehena.- Gauegiz Arteagako Helduen Elkartearen, Montorrealde Guraso Elkartearen, Artie Dantza Taldearen, Antoliñape Kultur Elkartearen eta Pertsona Nagusien Kanalako Nagusiak elkartearen eskaerak onartzea.

Bigarren.- Gaztelu-zar elkartearen eskaera baztertzea, diru-laguntza eskatzeko behar ziren dokumentu guztiak garaiz eta eskatu zen eran ez aurkezteagatik. Horrez gain, Gaztelu-zar elkarteak ez ditu betetzen Administrazioaren eskutik diru-laguntza hau jasotzen duten elkarteek bete beharreko berdintasun printzipioak, eta hori ere bada eskaera baztertzeko arrazoia.

Hirugarren.- Diru-laguntza orokor arrunt hauek ematea:

Erakundea	Zenbatekoa guztira (€)
Gauegiz Arteagako Helduen Elkartea	1.500,00
Montorrealde Guraso Elkartea	1.186,54
Artie Dantza Taldea	1.500,00
Antoliñape Kultur Elkartea	530,00
Pertsona Nagusien Kanalako Nagusiak elkartea	1.500,00

Laugarren.- Diru-laguntza berezi hau ematea:

Erakundea	Zenbatekoa guztira (€)
Gauegiz Arteagako Helduen Elkartea	150,00

Bosgarren.- Ebazpen honen hirugarren eta laugarren ataletan aipatutako diru-laguntza jaso ahal izateko, Elkarrekin “Gauegiz Arteagako gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzendutako diru-laguntzen 2017ko deialdian” ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte, eta deialdiaren 14. artikuluan zehaztutako justifikatzeko betebeharra ere bai, 2018ko urtarrilaren 31 baino lehen.

Seigarren.- Emandako zenbatekoen %50 ordaintzeko izapideak egitea, “Gauegiz Arteagako gizarte, kultura eta kirol esparruko irabazi-asmorik gabeko elkarteei zuzendutako diru-laguntzen 2017ko deialdiaren” 13. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Bosgarren.- Interesdunei Dekretu honen berri ematea, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean Gauegiz Arteagako Alkatearen aurrean bide administratiboari amaiera ematen dion Ebazpen honen aurka aukerako berrezartze-errekurtsoa jar dezaketela jakinaraziz; edota, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegietan. Hori guztia, beren eskubideak erabiltzeko jarri nahi duen beste edozein ekintza edo errekurtsoren kalterik gabe.

Seigarren.- Hurrengo Osoko Bilkuran ebazpen honen berri ematea.

Gauegiz Arteaga, 2017ko uztailaren 25ean

Idazkaria,

Alkatea,

Amaia Abanzabalegui Aranguren

Juan Felix Naberan Ozamiz